



#### 4 TANPOI ETA 4 KONPRESA AZTERTU DITUGU

## Konpresak edo tanpoiak: biak dira eraginkorrak, bakoitzarena erabakia

KOTOI HUTSEZ EGINDA DAUDEN KONPRESAK EZ DIRA HAIN ERAGINKORRAK BAINA HORIEK KENDUTA, KONPRESA ZEIN TANPOIAK, BIAK DIRA ERAGINKORRAK. TANPOIEN ARTEAN ERABILTZAILEEK NAHIAGO DITUZTE TXIKIAK ETA PLASTIKOZKO APLIKAGAILUA DUTENAK

Lau konpresa aztertu ditugu (Evax fina y segura, Evax, Ausonia eta Silvercare) eta beste lau tanpoi (Tampax Compak, Tampax, O.B. eta Silvercare), jario "normala", neurrikoa edo "moderatua" eta "ohikoa" xurgatzeko saltzen direnak. Konpresen artean Evax fina y segura izeneko baina ez zetorren hegalki gabe eta Silvercare zen 10 konpresekin zetorren bakarria, beste guztiek 16 baitzizuten. Tanpoien artean formatuak nahiko desberdinak dira (16 tanpoidun kutxak daude baina baita 40 dituzten handiagoak ere) eta prezioari begiratuta ere bada alderik. 12,3 zentimo kostatzen da Tampax etxeko bakoitza eta 19,8 zentimo, oster, etxe bereko Tampax Compak. Silvercare produktuak dira denen artean osagaiei begiratuta desberdinenak, kotoi hutsez eginda daudelako. Beste tanpoi guztiak biskosazkoak dira edo biskosa eta kotoia nahasita egiten direnak eta konpresak, berriz, zelulosa eta SAP izeneko polimero ultra-xurgatzailearekin eginda daude. Zein osagai erabili, emaitza ere halakoa: Silvercare etxea izan da azterketan kaskarra. Eta garestiena ere bai, 29,5 zentimo kostatzen da etxe horretako konpresa bakoitza eta 15 zentimo inguru Evax eta Ausonia. Merkeena, Evax

fina y segura, 12,2 zentimo kostatzen baita. Tanpoiak edo konpresak, ezin esan bata bestea baino merkeago denik, ezta eraginkorrago ere. Gure azterketak zerbait erakusten badu, horixe erakutsi du eta beraz, emakume bakoitzaren aukera gustuaren arabera izango da, ezin beste irizpiderik erabili.

Guk aztertu ditugun zortzi produktuak ongi eginda daude, etiketa ondo emana dute, seguruak dira eta diseinua, osaketa, xurgatze-gaitasuna eta eraginkortasuna egokiak direla esan genezake. Salbuespen bakarria, Silvercare etxeko konpresa eta tanpoiak (% 100 kotoia diren bakarrak). Emaitza kaskarragoa eman dute biek, bereziki, konpresek (besteekin konparatu eta haien hirurena baino ez duela xurgatzen ikusi dugu). Silvercare etxeak zera esaten du "ziurtagiria duen kotoi ekologikoa erabiltzen dugu, usairik gabea, klororik eta dioxinarik gabea, biskosarik bakoia, biodegradagarria eta hipoalergenikoa". Hori irakurrita norberak pentsa dezake produktu ekologikoa direla, naturala goa edo hobea osasunerako baina CONSUMER EROSKI-ren ustez ezin da esan kotoia naturarentzat zein emakumeen azalarentzat zelulosa baino hobea denik. Beste konpresa

MARKA	TANPOIAK			
	TAMPAX	TAMPAX COMPAK	O.B.	SILVERCARE
<b>FORMATUA</b>				
Tanpoi kopurua	40	20	32	16
Prezioa (zentimoak/bakoitza)	12,3	19,8	16,2	18,4
<b>PRODUKTUAREN DISEINUA</b>				
Luzera (mm)	48	44	50	47
Diametroa (mm)	13	10	13	13
Sokaren luzera (mm)	131	110	135	122
Aplikadorea	Kartoizkoa	Plastikozkoa	Ez du	Kartoizkoa
Tanpoiaren osagai nagusia	Kotoia + Biskosa	Biskosa	Biskosa	Biskosa
<b>ERAGINKORTASUNA (laborategi proba)</b>				
Xurgatzeko gaisuna (aitortua)	Ohikoa Tanta bi 6-9 g	Ohikoa Tanta bi 6-9 g	Normala Hiru tanta 9-12 g	Ohikoa 6-9 g
Xurgatzeko gaitasun erreala (g)	6,7	6,9	11,2	7,4
Xurgatze maila (g/g)	2,9	3,3	4,9	2,9
Tanpoiaren diametroaren itxuraldatzea (%)	28	117	59	62
Tanpoiaren luzeraren itxuraldatzea (%)	31	44	3	24
Sokaren erresistentzia (Newtonetan)	52	59	70	78
Egoera mikrobiologikoa (1)	Egokia	Egokia	Egokia	Hobetzeko modukoa
Dioxinak (2)	Hutsala	Hutsala	Hutsala	Hutsala
<b>KALITATE EMAITZA, laborategian neurtua</b>	<b>Ona</b>	<b>Oso ona</b>	<b>Ona</b>	<b>Hala-holakoa</b>
<b>ERABILERA PROBA, kontsumitzaileekin</b>	<b>5,9</b>	<b>7,3</b>	<b>5,1</b>	<b>5,3</b>

(1) Egoera mikrobiologikoa. Era honetako produktuek izan dezaketen gehieneko mikroorganismo maila ez dago araututa baina Silvercare etxeko tanpoiak duena CONSUMER EROSKI-ren ustez altuegia da, nahiz eta aurkitu ditugun mikroorganismoak ez diren patogenoak, hau da, gaixotasunak sortzen dituztenak. (2) Dioxinak. Dioxinak konposatu kimiko toxikoak dira, halako produktuetan egon behar ez direnak, minbiziarekin lotzen baitira eta beste zenbait eritasunekin. Aurkitu ditugun kopuruak benetan dira ezdeusak, hutsalak. Interneten era guztietako zurrumurruak daude, tanpoiak dioxinak dituztela esanez baina gure azterketak funtsik gabeko esanak direla erakusten du.

edo tanpoien osagaiei alergia dieten andreentzat izango dira hobeak Silvercare produktuak. Bestalde, tanpoien erabilera probak zera erakusten du, emakumeek nahiago dituztela tanpoi konpaktuak, txikiak eta plastikozko aplikagailua dutenak, Tampax Compak, bereziki. Konpresen artean, aldiz, Silvercare izan zen gutxien gustatu zitzaiena eta beste guztiek oso antzeko notak lortu zituzten, denak onak. Azken urteotan kontrako zurrumurruak egon badira ere, analisiak argi erakusten du tanpoiek ez dutela dioxinarik. Egoera mikrobiologikoa egokia izan zen Evax, Ausonia eta O.B-ren kasuan eta hobetzeko modukoa Silvercare etxekoan. Araurik ez badago ere, CONSUMER EROSKI-ren ustez mikroorganismoen maila altuegia du azken honek, patogenoak ez badira ere (gaixotasunak ekartzen dituztenak). Kalitate-prezioan Tampax Compak gailendu da tanpoien artean, garestienak badira ere, eta konpresen artean, Evax fina y segura, merkeena da, txikiena ere bai eta erabilera proban emaitza ona lortu du.

### ZEREKIN DAUDE OSATUTA?

Egitura eta materialen aldetik, konpresak haurrentzako pixoihalen antzekoak dira eta tanpoiak, aldiz, zilindro itxura dute eta biskosa zein kotoia prentsaturik egiten dira. Gehien saltzen diren konpresek zelulosazko muina dute eta zelulosarekin batera nahasten dute SAP izeneko polimero oso xurgatzailea. Bustia dagoenean polimero horrek

gel itxura hartzen du eta konpresari sakatuta ere, likidoari ez dio ateratzen uzten. Azala ukitzen dagoen kanpoko geruza, berriz, ehun sintetiko egina dago, jarioa ahalik eta arrin muinera hel dadin eta konpresa jarri duen emakumearen azalaren lehor jarrai dezan. Tanpoiak, orohar, biskosa edo antzeko ehun sintetikoekin egiten dira eta horien xurgatze-gaitasunak erabakiko du tanpoiaren neurria. Zenbat eta gehiago xurgatzeko gai izan, txikiagoa izango da tanpoia. Erabilera proba egiteko hartu ditugun andreek nahiago izan dituzte tanpoi txikiak eta horiek dira ikuspuntu ekologikotik ere onenak, ehun gutxiago behar da haiek egiteko eta errazago garraitzen dira.

Zelulosa eta SAP, horiexek dira konpresei xurgatze-gaitasuna emateko erabiltzen diren osagai nagusiak. Biskosa bera ere zelulosatik lortzen da, nahiz eta kotoi hutsez ere egin daitezkeen konpresa zein tanpoiak (hala egiten du Silvercare etxeak). SAP izeneko polimero ultra-xurgatzailea ezagutzen diren materiale guztien artean dagoen eta xurgatzaileena da. 800 aldiz bere pisua xurga dezake eta horregatik erabiltzen da konpresetan baina ez tanpoietan. Izan ere, tanpoietan Shock Toxikoaren Gaitza deitu denarekin lotzen da. 1970ean deskribatu zen lehen aldiz halako gaitz hilgarri zein arraroa, oso-oso gutxitan ematen dena. Tanpoi ekoizleek, SAP eta gaitzaren arteko harremana ikusita, polimero hau ez erabiltzea erabaki zuten baina hala ere, tanpoietan gaitzari buruzko informazioa ematea >

## KONPRESAK

MARKA	EVAX FINA Y SEGURA	EVAX	AUSONIA	SILVERCARE
<b>Formatua</b>	Hegalik gabea	Hegalduna	Hegalduna	Hegalduna
<b>Konpresa kopurua</b>	16	16	16	10
<b>Prezioa</b> (zentimoak/bakoitza)	12,2	15	15,3	29,5
<b>PRODUKTUAREN DISEINUA</b>				
<b>Luzera</b> (mm)	219	238	239	237
<b>Zabalera</b> (mm)	95	101	101	100
<b>Lodiera</b> (mm)	2,4	2,4	2,3	2,8
<b>Gainazal itsaskorra</b> (cm <sup>2</sup> )	64	79	71	27
<b>Azaleko geruzaren osagaia</b>	Plastikoa	Plastikoa	Plastikoa	Kotoia
<b>Barruko geruzen osagaiak</b>	Airlaid Polimero super-xurgatzailea	Airlaid Polimero super-xurgatzailea	Airlaid Polimero super-xurgatzailea	Kotoia
<b>ERAGINKORTASUNA<sup>1</sup></b>				
<b>Xurgatze-gaitasuna</b> (aitortua)	Normala	Normala	Normala	Ultra, egunerako
<b>Jarioak<sup>2</sup></b> (g)	0	0	0	1,6
<b>Itzulera<sup>3</sup></b> (g)	0,60	0,90	0,76	7,56
<b>Edukitzea<sup>4</sup></b> (g)	6,0	6,5	6,8	2,3
<b>KALITATE EMAITZA, laborategian neurtuta</b>	<b>Oso ona</b>	<b>Oso ona</b>	<b>Oso ona</b>	<b>Hala-holakoa</b>
<b>ERABILERA PROBA, kontsumitzaileekin</b>	<b>6,9</b>	<b>7,8</b>	<b>7,6</b>	<b>4,6</b>

(1) **Eraginkortasuna.** Manikiak eserita zein zutik jarri genituen eta biekin egin genuen proba, kasu bakoitzean konpresek 12 gramo likido nola xurgatzen zituzten neurtzeko. (2) **Jarioak.** Xurgatzen ez likidoaz ari gara. Eserita zein zutik. Silvercare izan ezik beste guztiak isuritako likido guztia xurgatu zuten. (3) **Itzulera.** Konpresak likidoa xurgatu ostean xukapaperra jarri genion gainean eta barruko geruzetatik papera itzultzen zen likidoa neurtu genuen. Manikia eserita zegoenean nahiz zutik jarrita. (4) **Edukitzea.** Konpresak barruan gortzen duen likidoa, zentrifugatu ondoren ere ateratzen ez dena. Batez-bestekoaz ari gara, zutik zein eserita proba egin ondoren.

adostu zuten. Guk aztertu ditugun lauretan hala egiten dutela frogatu dugu. Beraz, polimero honeki ez bada, zerekin dauden tanpoiak eginda? Ba, Tampax Kompak eta O.B. biskosarekin, Tampax biskosa eta kotoiarekin eta Silvercare kotoi hutsez.

## TANPOIAK

Egon badaude aplikagailurik gabeko tanpoiak nahiago dituzten andreak baina gure erabilera proban gehienek aplikagailua nahiago zuten, plastikozkoa zein kartoizkoa, tanpoia errazago jartzeko. Plastikozkoaren abantaila, hondartzan edo igerilekuan erabilgarriago izan litekeela, bustita ere berdin jartzen baita. Azterketa honetan begiratu ditugun lau tanpoiak emakumeen isuria ohikoa denerako pentsatuak dira (ez ugaria, ezta urria ere) eta etxe berberak egun horietarako bi eratako tanpoiak zituenean gutxien xurgatzen zuena aukeratu genuen. O.B. etxeak hiru tanta izendapena duten tanpoiak gomendatzen ditu (9-12 gramokoak) ohiko isuriarentzat eta beste hirurek, oster, bi tanta izendapena duten tanpoiak isuri beretsua xurgatzeko (6-9 gramo). Ekoizlearen iritzia alde batera utzita, zera esan genezake, laurek egoki betetzen dutela beraien funtzio nagusia. O.B. etxeak bestea baino gehiago xurgatzen du baina horrek ez du hobe egiten. Hobe, berez, emakume horren beharrak betetzeko xurgatze-gaitasun nahikoa duena litzateke. Bestalde, gehiago xurgatzen duen tanpoia txikiagoa izan daiteke eta erosoagoa. Zen-

tzu horretan bai, zentzu horretan O.B. da besteak baino hobe, tanpoiaren gramo bakoitzeko 4,9 gramo likido xurgatzeko gai delako. Tanpoi txikiena, oster, Tampax Kompak da, honako neurri hauekin: 44 mm luzera (besteek 47, 48 eta 50 dituzte) eta 10 mm zabalera (besteek 13 mm dituzte). Berez, likidoa xurgatu ondoren ere, tanpoiak ez luke itxuraltu beharko eta forma mantendu beharko luke baina ezinezkoa da hori eta denak aldatzen direla ikusi dugu. Tampax Kompak etxearen diametroa da gehien zabaltzen dena, % 117. Tampax gutxien, % 28. Luzeran ere, Tampax Kompak hazten da gehien, % 44 eta O.B. gutxien, % 3 baino ez. Lau tanpoiaren sokak ere probatu genituen eta denak eutsi zioten egindako indarrari.

## DIOXINARIK EZ

Bi zurrumurru, zein baino zein gogorrigo zabaldu ziren duela ez horrenbeste urte. Tanpoiak dioxinaz zituztela bata (minbizia eragin dezaketen konposatu toxikoak dira dioxinak) eta bigarrena, ekoizleek nahita asbestoa jartzeko zietela, andreen odol isuria hazi eta negozio gehiago egiteko. Zurrumurru larria horrenbeste zabaldu zenez, AEB-tako FDA erakundeak gezurtatu egin behar izan zuen (Jakiak eta Drogak kontrolatzen dituen Administrazioaren saila da FDA). Asbestorik ez zela erabiltzen esan zuen lehenik (legez kontrakoak zirela gogoratuz) eta dioxinarik ez egoteko neurriak arautu zituztela ekoizleekin. CONSUMER EROSKI-k bere azterketa egin ondoren lasai egoteko

Kontsumitzaileen iritzia izan du berebiziko garrantzia azterketa honetan

moduan gaudela esan dezake, tanpoiaren dioxina maila hutsala baita. Miloi bakoitzeko 0,75 zati onartzen dira jakientzako araurik zorrotzenaten eta horren oso azpitik daude guk aurkitu ditugun kopuruak.

## KONTSUMITZAILEEN IRITZIA

30 emakumeri eskatu genien konpresa eta tanpoi denak probatzeko. Tampax Kompak gustatu zitzaizkien gehien tanpoiaren artean (7,3 puntu). Alde handiarekin gainera, Tampaxek 5,9 lortu zituen eta O.B. zein Silvercare etxeak 5na eskas baino ez. Tampax etxeak biak izan ziren erosoena kontsumitzaileen iritziz. Konpresen artean nota hobeak, orohar. Evax onena, 7,8 punturekin, Ausonia gero 7,6rekin, Evax jarrian 6,9rekin eta eskasena, alde handira, Silvercare, 4,6 punturekin.

## KONPRESAK

Txikia, zapala eta asko xurgatzen duena. Horixe litzateke konpresa borobila. Baina hiru ezaugarriak estuen betetzen dituen konpresa (Evax Fina y Segura) ez zen izan kontsumitzaileen gustukoena erabilera proban. Azken baten, gaur egungo materialei esker konpresa guztiak xurgatzen dute jario ugaria eta denak dira meheak. Silvercare da lodiena (2,8 mm) eta kontsumitzaileei gutxien gustatu zaiena. Konpresaren alde itsaskorra ere neurtu egin dugu, zenbat eta zabalago hobeto eutsiko diolako bere lekuari. Kasu honetan ere, Silvercare eskasena, 27 cm<sup>2</sup> ditu eta

beste hirurek 64 eta 79 cm<sup>2</sup> artean. Erabilera proban, azpiko galtzetan itsatsita geratzen bada galdetu genuenean nota eskasak lortu zituen gainera. Garrantzitsua da eta hori ere galdetu genuen, azala ukitzen duen geruza leuna izatea. Silvercare konpresan kotoizkoa da geruza hori eta besteetan plastikozkoa. Ba, kotoizkoa gustatu zitzaizkien proba egin zuten emakumeei.

Konpresaren eraginkortasuna neurtzeko hiru alderdi aztertu genituen: jarioak, itzulera, edukitzea. Nola? Eserita zein zutik zeuden manikiak hartu eta emakumearen isuriaren antzeko 12 gramo likido bota genituen. Evax, Evax Fina y Segura eta Ausoniak arazorik gabe xurgatu zuten dena baina Silvercare konpresarekin 1,6 gramo ez ziren xurgatu manikia zutik zegoenean eta 1,5 eserita zegoenean. Behin likidoa xurgatua berriz azaleratzen ote zen ere jakin nahi genuen. Evax, Evax Fina y Segura eta Ausonia etxeak konpresetan 12 gramo horietatik 1 baino ez zen azalera itzultzen (emaitza egokia, beraz) baina Silvercare konpresak ez dira gai likidoa barruan gortzeko eta 7,50 gramo azaleratzen ziren (zutik hori, eserita are gehiago). Azkenik, edukitzeari begiratu genion, hau da, konpresa muinean geratzen den likidoari konpresa kentzen denean, adibidez, edo tolestu. Evax, Evax Fina y Segura eta Ausoniak 6-7 gramo eduki ditzateke eta Silvercare etxeak, oster, 2,3 gramo baino ez. Erabilera proban ere emaitza kaskarra lortu zuen emakumeei konpresarekin sentitzen zuten babesa nahikoa ote zen galdetu genienean. //

## TANPOIAK

**TAMPAX COMPAK**

**Tanpoia. Plastikozko aplikagailua dauka**

20 tanpoi datoz. 19,8 zentimo bakoitza, garestienak.

**Prezio-kalitate harremanean onenak.**

Aztertu duguna "ohiko" jarioarentzat zen, jario urria edo ez oso ugariarentzat.

**Laborategian eman duen kalitate emaitza:**

Oso ona. Tanpoi txikiak eta soka laburrenak dutenak. Isuriaren ondoren diametroa % 117 hazten da, besteetan baino gehiago eta luzera % 44.

**Erabilera proba:** 7,3 puntu. Gehien gustatu zaiena kontsumitzaileei. Tamainua, aplikagailua, xurgatze-gaitasuna, erositasuna eta kentzeko erraztasuna gustatu zaizkie, bereziki.

**TAMPAX**

**Tanpoia. Kartoizko aplikagailua dauka**

40 datoz kutxa bakarrean. 12,3 zentimo kostatzen da bakoitza, merkeenak.

Aztertu duguna "ohiko" jarioarentzat zen, jario urria edo ez oso ugariarentzat.

**Laborategian eman duen kalitate emaitza:**

Ona. Kotoia eta biskosa nahastuta egiten diren bakarrak (besteak edo kotoia edo biskosa dira). Soka besteetan baino errazago apurtzen da baina indar nahikiari eusten dio. Erabiltzean diametroa besteetan baino gutxiago hazten da (% 28)

**Erabilera proba:** 5,9 puntu. Erdi-mailako notak lortu ditu galdera guztietan.

**O.B.**

**Tanpoia, aplikagailurik gabea**

32 tanpoi datoz kutxa. 16,2 zentimo balio du bakoitzak.

Aztertu duguna jario "normalarentzat" zen, jario urria edo ez oso ugariarentzat.

Laborategian eman duen kalitate emaitza:

Ona. Luzeenak (50 mm dituzte eta beste hirurek 44 eta 48 mm artean). Gehien xurgatzen dutenak dira: tanpoiaren gramo bakoitzak 4,9 gramo likido (besteek 2,9 gramo eta 3,3 gramo likido artean xurgatzen dute gramo bakoitzeko). Erabili ondoren neurtuta, gutxien hazi zena (% 3 baino ez)

**Erabilera proba:** 5,1 puntu. Aplikagailurik ez duela kritikatu diote kontsumitzaileek eta ez dela jarri edo kentzeko hain eroso.

**SILVERCARE**

**Tanpoia, kartoizko aplikagailua duena**

16 tanpoi datoz kutxa. 18,4 zentimo bakoitza.

Aztertu duguna "ohiko" jarioarentzat zen, jario urria edo ez oso ugariarentzat.

Etiketa ez du behar bezain ongi emana eta hobe daiteke. Ez ditu tanta marrazkiak erabiltzen xurgatze-gaitasuna adierazteko, beste ekoizle guztiek bezala.

**Laborategian eman duen kalitate emaitza:**

Hala-holakoa. Kalitate mikrobiologikoa hobe zitekeen, patogenoak ez ziren arren, mikroorganismo gehiegi aurkitu genituen (180 gramo bakoitzeko eta 100dik gora gehiegi jotzen dugu, araurik ez badago ere, hori baita pixohialetan maila onargarria eta kosmetikoetan ere bai). Soka beste tanpoiaren baino sendoagoa da, nahiz eta denak diren aski sendoak. Kotoi hutsez eginda daude, % 100ean.

**Erabilera proba:** 5,3 puntu. Tanpoiaren artean emaitza eskasena izan duena. Kontsumitzaileei ez zaizkie gustatu tamainua eta xurgatze-gaitasuna eta ez dela, esan dute, besteak bezain eroso jarri eta kentzen.

## KONPRESAK

**EVAX FINA Y SEGURA**

**Konpresa, hegalki gabea**

16 dato zkutxa, 12,2 zentimo bakoitza, merkeenak. Kalitate-prezio harremanean konpresa onenak.

Aztertu duguna jario "normalarentzat" zen.

Laborategian eman duen kalitate emaitza:

Oso ona. Txikiena da, laburrena eta estuena. Gainera, besteetan baino likido gutxiago azaleratzen da (0,60 gramo eta besteetan 0,76 eta 0,90 artean itzultzen da kanpoko geruzara)

**Prueba de uso:** 6,9 puntu. Erdi-mailako notak izan ditu orohar.

**EVAX**

**Konpresa, hegalduna**

16 konpresa datoz kutxa, 15 zentimo bakoitza.

Aztertu duguna jario "normalarentzat" zen.

Laborategian eman duen kalitate emaitza:

Oso ona. Itsaskorra den azalera besteetan baino luzeagoa zen.

**Erabilera proba:** 7,8 puntu. Nota altuena.

Azalarekin kontaktuan dagoen geruza besteak baino leunagoa zela azpimarratu zuten kontsumitzaileek, erositasuna eta babestuta egotearen sentsazioa.

**AUSONIA**

**Konpresa, hegalduna**

16 datoz kutxa, 15,4 zentimo bakoitza.

Aztertu duguna jario "normalarentzat" zen.

Laborategian eman duen kalitate emaitza:

Oso ona. Handiena baina baita mehena ere. Xurgatze-gaitasun gehien duena (6,8 gramo).

**Erabilera proba:** 7,6 puntu. Bigarren emaitzarik onena. Ondo eusten duela azpimarratu zuten erabiltzaileek eta usai desatseginak neutralizatu egiten dituela.

**SILVERCARE**

**Konpresa, hegalduna**

10 datoz kutxa, 29,5 zentimo bakoitza. Garestienak, alde handiarekin.

Aztertu duguna jario "normalarentzat" zen.

Ultra izenekoa, egunerako pentsatua.

Laborategian eman duen kalitate emaitza:

Hala-holakoa. Denetatik lodiena eta itsasteko zabalera gutxien duena. Kotoizkoa den bakarra. Besteak airtad izeneko polimero super-xurgatzailea dute. Ez da beste hirurak bezain eraginkorra, ez zuen likido guztia xurgatu eta apur bat berriz azaleratu zen (2,3 gramo edukitzeko gai da eta besteak 6 gramo edo gehiago). Berriz azaleratzen den isuria besteetan baino ugariagoa da.

**Erabilera proba:** 4,6 ptos. Okerrena, alde nabarmenarekin. Kotoizko geruza ez zitzaion erabiltzaileei sintetikoak bezain beste gustatu, babes maila txikiagoa zela esan zuten, ez zela hain eroso, okerrago itsasten zela eta usai desatseginak ez zituela behar bezain ongi neutralizatzen.